

GALDE-ERANTZUNAK

MIKEL GORROTXATEGI NIETO jauna,

ONOMASTIKA batzordekidea

Gasteizen, 2000ko martxoaren 1ean

*Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria*

Agur, Gorrotxategi jauna:

Zure kontsulta bat jaso dugu Zaraitzu eta Erronkari biltzen dituen mankomunitatearen izena Gramatika batzordearen iritziz nola litzatekeen galdetuz. Honako bi aukera hauek ematen dizkiguzu:

Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

Lehendabizikoaren gainean diozu Mitxelena horren aldekoa zela, tradizioko hainbat lekukotasunek erakusten duten legez. Egia da; hona hemen aurkitu ditugun batzuk:

K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VIII* - 116: *Erren-deri sortu zuten gero, ordea, *XXgn mende honetan bertan, izenak, zaharra goa izan balitz, izan zukeen itxura aldaturik, *Erronkari-Zuberoetan izan ezik, hango bihurtu den gisan, alegia.

KM MEIG VII - 97: Aurkientza horietan, beste hitz bakar batek jaten dio lurra, *Araba-Gipuzkoetako eremuetan batipat: antzina antzinako den egubakotx'ek.

KM MEIG VI - 69: jauntxoentzat izan zen galgarri galera hura, eta *Bilbo-Donostietako burgesak ez ziren jauntxoak, eta ez jende arruntarentzat.

KM MEIG V - 90: Hor ikus daitekeenez, *Bizkai-Gipuzkoetako burdin-gintza galduan gelditu zen 1650 ondoan, gutti gorabehera, bestetangoaren aldean *Sueziakoarenean, batez ere.

KM MEIG I - 227: Almirante nabarmenegia iruditzen zitzaioelako edo, zertxobait itxuraldaturik hartu zuen *Azkuek: albiente, *Gipuzkoa-Nafarroetako zenbait herritan jaso, eta erskinetan *Etxarri-Aranazko almente.

KM, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* - 339: *Afrika-Asietako herri askatu berri edo askatasun bidean direnen marmar hotsa ez da gehienbat *Europar ikasi dituzten hitzen, gogoeten eta hizkuntzen oihartzuna baizik.

KM MIH - 375: *Zuberoako leherrak, *Errongari-Zaraitzuetako ler eta llerko lerdanak, ederki.

KM MIH - 259: *Gipuzkoa-Nafarroetako mugan artzain-ikazkin eta nekazarien artean hazia eta bizia zen basa-mutikoa *Xabierri eraman zuten, *Jesusen Konpainiaren ikastetxera.

KM MIH - 385: *Gipuzkoa-Nafarroetako aditza, ez *Nafarroa osokoa, ezta ere *gipuzkoa osokoa, ordea, oraindik orain neurtua eta pisatua izan da, nola neurtua eta pisatua ere, eta huts aurkitu dute, behiala *Baltaxar erregea huts aurkitu zuten bezalaxe.

Nolanahi ere ez da pluraleko formak erabiltzen dituen autore bakarra:

Orixe, *Euskaldunak* - 139: *Bizkai-Gipuzkoetan Olentzaro.

Orixe, *Ibidem* - 141: Geroago, *Bizkai-Gipuzkoetan, Santagedaz: *Oiarzu'n eta *Orio'n Samikolasetan; *Naparroan, berriz, Donianetan.

Orixe, *Quiton Arrebarekin* - 83: Orregatik eskeñi zienan Cubatar ezpain-aundi arek, arek sortuazi baitzun guda *Iruñako emakume aundi katolikuekin, yanaz eta yantzi az gañera zazpi pezta emango zitiela gudara atera nai bazuten; eta gero, *Bizkai-Gipuzkoetako paurriketan ogibidea bazuketela, angoeri kendurik.

Echeita, *Josecho* - 135: *Karlos-geizto ta *Martin-zaldik, burrukaldiak egin ebezanean, entzute andikoak zirean eurak eta *Mari *Jesus, *Mundaka-Bermeoetan; da gero, neskatiñ ori ta *Martin ezkondu zireanean, kalietan kantaten ebezan errietako neska-mutillak, urrengo doazan koplak.

Echeita, *Ibidem*- 208: Eldu zirean *Jagoba eguneko jantzarazoak, *Mundakatik urre samar egoan aritx-arte baten egitten zireanak, eta *Mundaka-Busturietako gazteak, iru egunean, tanbolin soñuan, alkarregaz jolastuten zireanak.

Dena den, zure galderaren oinarri den egiturarako honako beste egitura hauetako bat erabiliko genuke:

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

Horrela erabiltzen ditugu honakook ere:

Baionako hiria

Baiona hiria

Pluralekoa (*Zaraitzu-Erronkarietako* *mankomunitatea*) zilegi litzateke plurala den kontzeptuak baliatzekotan. Horrelakoak dira goiko adibideak: *Afrika-Asietako herriak* dira Afrikako herriak eta Asiako herriak, ez bietakoak diren herriak; gauza *bera Araba-Gipuzkoetako eremuak* egituran: Arabako eremuak eta Gipuzkoako eremuak alegia, eta ez bienak diren eremuak edo bien artean (amankomun) dituzten eremuak.

Erakundeak (maiz bi edo gehiago batuz osatzen diren entitate banakoak diren neurrian) izen berezi gisa erabili beharko dira. Beraz,

Busturia-Mundaka-Bermeoko partzuergoa

**Busturia-Mundaka-Bermeoetako partzuergoa*

Zaraitzu-Erronkariko mankomunitatea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

**Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea*

Baina bai

Busturia-Mundaka-Bermeoetako itsasgizonak

Eta

Zaraitzu-Erronkarietako biztanleak

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.